



Zaldi beltzak zeruan Txomin Peillen

Hitzaurrea: Joseba Sarrionandia

Maiatz argitaletxea eta (*H*)ilbeltza elkartearen
laguntzarekin

ISBN: 978-84-9172-027-0
Pamiela Kondagintza, 36
2018. urtea / 15 x 21,5 cm / 112 or.
10,00€

Ipuin liburua duzu hau, ipuin beltzak agertzen dituen. *Gauaz ibiltzen dana* liburuaren hiru kapitulu hasteko eta bortz ipuin segidan. Lehenago idatzi bazuen ere, 1967an argitaratu zuen Txomin Peillenek *Gauaz ibiltzen dana* nobela beltza, bertze zenbaitzuekin batean aitzindaria izanik.


Nobelaren hiru kapitulu dituzu eskura liburu honetan, intrigako pasarte argigarriak. Omenaldi gisakoa da 50 urte bete dituen nobelari. Horrekin batean bertze bortz ipuin, beltzenetan beltzenak eta ongi girotuak, horietako bakarra aitzinetik argitaratua.

Herentzia batekin desagertzen baten berri duen anaiaren bilaketa; mafiako buruaren hilketa eta ordezkorengatik lehia; Milanon ondarearekin batean arrebaren joko zikina ezagutzen duenaren ibiltzeak; lan bila dabilen gazteak familietan gertatzen diren zikinkeriak deskubritzen; hildakoeekin lanean eta bizidunekin jostetan aritzen den lege-medikua...

«Lurreango bizitza beti izan da zurian beltza, eta hori mundu globalizatu honetan agian argiago ikusten da. Txomin Peillenen idazlan guztiek argizatzen dute iluntasun hori, mila kontatu eta aldiro beste kontu argigarri bat dakarrela. Ipuin beltz hauek ere argituko dute zerbait.»

JOSEBA SARRIONANDIA (Hitzaurrean)

.....



Txomin Peillen (*Paris, 1932*)

Euskaltzaina. Biologian, Filologia Hispanikoan eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Euskal Ikasketetan doktorea. *Igela* aldizkariaren sortzailea Jon Miranderekin batean.

Txomin Agirre saria hiru aldiz irabazia, horietako bat *Gauaz ibiltzen dana* nobela beltzarekin. Beasaingo Udalaren saria (1984); Espainiako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren saria (1995); Euskal Herriko Idazleen Biltzarraren

saria (Sara, 2008); Agosti Xaho Kultur Elkartearen Saria (2009); Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria (2009). Hamaika liburu argitaratuak, literaturaren alor guzietan. Argitaratu dituen nobela beltzak: *Gauaz ibiltzen dana* (1967), *Itzal gorria* (1972), *Gatu beltza* (1973), *Alarguntsa beltza* (2001) eta ipuin beltzak han eta hemen.



www.pamiela.com

948 326 535 • soltxate@pamiela.com